

KULTURA SAILA**Zk-4966**

156/1996 DEKRETUA, ekainaren 18koa, Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko. (Hutsen zuzenketa).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuaren 24.2 a) atalean ezartzen denez, testuetan egindako hutsegite batzuk kontestutik argi eta garbi argitzen badira ere –eta ondorioz, xedapen, egintza edo iragarpenen zentzua aldatzen ez badute ere–, argitalpena agindu duen organoak konpondu egingo ditu nahasbiderik ez sortzeko komenigarria den kasuetan. Horretarako, testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia dagozkion zuzenketekin argitaratuko du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeari buruzko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuan (1996ko uztailearen 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 125 zk.), euskaratik gaztelerarako itzulpenean hutsegite bat egin denez, egin beharreko zuzenketak azaltzen dira jarraian:

3.1 ataleko 8. idazatian, a) letran (10688. orrialdean), gaztelerako testuan, hau dio:

«a) tres representantes de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

Eta hau esan behar du:

«a) un representante de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

Zk-4967

234/1996 DEKRETUA, urriaren 8koa, balizko arkeologia guneak finkatzeko araudia ezartzen duena.

Euskal Kultura Ondareari buruz uztailearen 3an onartutako 7/1990 Legearen 49. atalak balizko arkeologia guneak sail batean jasotzen ditu Arkeologia Ondarearen barruan. Sail horretan sartzen dira aztarna arkeologikoak izan ditzaketen inguru, orube zein eraikinak eta, era berean, beharrezkotzat jotzen da bertan egingo diren obren jabeak edo arduradunak ikerketa bat egin dezan orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoaz edo obra proiektuan izan dezakeen eraginaz.

Aipatutako ikerketa arkeologikoa legeaz aurkeztu

DEPARTAMENTO DE CULTURA**Nº-4966**

DECRETO 156/1996, de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera. (Corrección de errores)

El art. 24.2 a) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores producidos por una incorrecta traducción del texto en euskera al castellano del Decreto 156/1996, de 18 de junio, de transformación del Consejo Asesor del Euskera, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 125, de 1 de julio de 1996, se procede a su oportuna corrección:

– En la letra a) del apartado 8.º del artículo 3.1 (página 10688), en el texto en castellano, donde dice:

«a) tres representantes de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

debe decir:

«a) un representante de cada una de las Diputaciones Forales, con rango mínimo de Director.»

Nº-4967

DECRETO 234/1996, de 8 de octubre, por el que se establece el régimen para la determinación de las zonas de presunción arqueológica.

De conformidad al artículo 49 de la Ley 7/1990 de 3 de julio de Patrimonio cultural vasco, se establece dentro del Patrimonio Arqueológico, la categoría de las zonas de presunción arqueológica, para aquellas zonas, solares o edificaciones en que se presume la existencia de restos arqueológicos, fijando la necesidad de que el propietario o promotor de las obras que se pretendan realizar aporte un estudio referente al valor arqueológico del solar o edificación y la incidencia que pueda tener en el proyecto de obras.

La posible incertidumbre en la que los legalmente

behar dutenek izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta ikerketa horrek nolakoa eta norainokoa izan behar duen zehazteko, beharrezkoa da dagokien Herri Aginteen arau horren nondik norakoak zehatz-mehatz azaltzea. Hori dena, Euskal Kultura Ondarearen Legeari jarraituz, bertan, Azken Xedapenetatik Lehenean ezartzen denez, Jaurlaritzak, berariaz ezarrita dauden arauez gainera, Legea betetzeko beharrezko diren arau guztiak emateko eskumena baitu.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez, Jaur-laritzaren Kontseiluak 1996ko urriaren 8an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.- Arkeologia gune izan daitezkeen inguru, orube zein eraikinak zehaztu eta mugatzeko araudia onartzea, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legean, azken xedapenetatik lehenean ezarritakoari jarraituz. Era berean, balizko arkeologia gune horien balio arkeologikoari buruzko azterketaren eduki eta osagaiak ere onartzen dira, Lege beraren 49. atalaren arabera.

2. atala.- Inguru, orube zein eraikinak balizko arkeologia gunetzat jotzeko izendapena, Kultura Ondarearen arloaz arduratzen den sailburuordeak egingo du Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendariak horrela eskatuz gero. Sailburuordeak emango dio hasiera dagokion espedienteari, izendatutako leku horietan aztarna arkeologikoak aurki daitezkeela azalduz Kultura Ondarearen Zentroak egingo duen txostenean oinarrituta.

Edozein gizabanako zein Erakunde zuzendu dakiok Kultura Ondarearen Zentroari arkeologia gune izan daitezkeenak egiaztatzeko egin beharreko zereginak egin ditzan eskatuz. Esparru bat arkeologia gune izendatzeko eskaerari jarraituz, dagokion ikerketa egin ondorengo Txostaren arabera leku horretan arkeologia aztarnarik ez dagoela ikusiz gero, Kultura Ondarearen zuzendariak horri buruzko espedienterik ez dela irekiko jakinaraziko dio eskaera egin duenari eta erabaki hori hartzeko arrazoiak ere azalduko dizkio.

3. atala.-

1.- Kultura Ondarearen Zentroak, inguru, orube zein eraikin batean aztarna arkeologikoak egon daitezkeela frogatzeko, leku horretan Arkeologia Zientziak balizko aurkikuntza arkeologikoen aztarnatzat hartzen dituen elementuetakoren bat badagoela egiaztatu beharko du.

2.- Ildo horretatik, aipamen hutsa eginik, balizko arkeologia gune izendatu ahal izateko aztarnatzat ondorengo hauexek joko dira:

- Gizakien bizilekuen erakusgarri, lorratz eta aztarna izan ohi diren material arkeologikoak aurkitu eta egiaztatzea.

- Leku hori historian zehar gizakien bizileku izan dela frogatzeko dokumentu eta bibliografia argibideak.

obligados pueden verse ante la necesidad de aportar el referido estudio arqueológico, así como el dimensionamiento que al mismo haya de dársele, exige que los Poderes Públicos competentes, delimiten los contenidos del citado precepto, dentro del marco que la mencionada Ley de Patrimonio Cultural Vasco, habilita en su Disposición Final Primera, párrafo segundo, en cuanto autoriza al Gobierno Vasco para dictar, las disposiciones reglamentarias, que además de las expresamente previstas, sean precisas para su cumplimiento.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de octubre de 1996,

DISPONGO:

Artículo 1.- Se aprueba, en aplicación de la disposición final primera, de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, el régimen para la determinación y delimitación de las zonas, solares y edificaciones, de presunción arqueológica y los contenidos del estudio referente al valor arqueológico de las mismas, previsto en el artículo 49 de la citada Ley.

Artículo 2.- La declaración como zona, solar o edificación, sujeta a presunción arqueológica, será efectuada por el Viceconsejero al que quede afecta el área de Patrimonio Cultural, a instancia del Director de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, el cual incoará el oportuno expediente previo informe del Centro de Patrimonio Cultural, fundamentando la posibilidad de hallazgo de restos arqueológicos en la zona afectada por la declaración.

Cualquier particular o Institución, podrá dirigirse al Centro de Patrimonio Cultural, al efecto de que éste promueva las labores oportunas, destinadas a acreditar la presunción arqueológica. Cuando del análisis de un área para la que se haya promovido una declaración de presunción arqueológica, resulte un Informe del que se desprenda la ausencia de presunción arqueológica, el Director de Patrimonio Cultural le notificará la denegación de incoación fundamentada.

Artículo 3.-

1.- Al objeto de informar favorablemente la presunción arqueológica de una zona, solar o edificación, el Centro de Patrimonio Cultural deberá acreditar la presencia de cualquiera de los elementos que la Ciencia Arqueológica, reconozca como indicio de un posible hallazgo arqueológico.

2.- En tal sentido y con carácter meramente enunciativo, se considerarán indicios para efectuar la declaración de presunción arqueológica:

- La presencia constatada de materiales arqueológicos que correspondan habitualmente a la existencia de asentamientos humanos.

- Las fuentes documentales y bibliográficas que demuestren la ocupación del lugar en las distintas etapas históricas.

– Agerian eta ikusgarri dauden egiturak, hala nola, terrazamenduak, harresiak, tumuluak edo aurkikuntza arkeologikoren baten erakusgarri izan daitezkeen beste-lako elementuak.

– Aztarnategi arkeologikoak, neurri batean aztertuta eta indusita egon arren, oraindik arkeologia elementu gehiago izan ditzaketanak edo naturaren zein jendearen eraginez erabat aldatuta daudenak.

3.– Aipatutako aztarna horiek kontuan hartuta, Kultura Ondarearen Zentroak, egin beharreko txostenean, arkeologia gunetzat hartutako perimetro osoa jasoko du zehatz-mehatz, aipamen orokorrak edo ondo zehaztu gabeko inguruak alde batera utzita.

4.– Dena dela, balizko aurkikuntza arkeologikoa babesteko inguruan jarriko den babes perimetroa hamabost metrotik beherakoa izango da urbanizatze-koak ez diren lekuetan eta, hiru metrotik beherakoa, herri barruan edo urbanizatze-koak diren tokietan.

Babeserako perimetroa zein den azaldu eta mugatutakoan, argi eta garbi ikusi beharko da, inolako zalan-tzarik gabe, babestutako esparrua zein den.

5.– Kultura Ondarearen Zentroak, ahal den guztietan, lan-modu sistematiko bati jarraituko dio Udalerrri zein Udal Multzo bakoitzaren barruan antzekotasun historiko-artistikoa duten balizko arkeologia gune guz-tiak bateratsu izendatuak izan daitezen eta, era horretara, Udalerrri zein Udal Multzo bakoitzari dagozkion datu eta eskabide guztiak ere, antzekotasun historiko-artistikoa izanez gero, Txosten berean jaso daitezen.

4. atala.– Espedientean jasotako dokumentazioa iku-sirik, Kultura Ondarearen zuzendariak interesatuentzako entzunaldia irekiko du, balizko arkeologia gunea sailkatzeko aurretiaz egindako izendapenaren bitartez. Izandapenean, nahitaez, perimetroa mugatuko da zehatz-mehatz eta balizkotan uste hori zein lorratze-tan oinarritzen den jakinaraziko da, gai horretan intere-saturik egon daitezkeenei azalpenak eman ahal izateko.

Aurkitutako aztarnak kontuan izanik, balizko arkeo-logia guneak Udalerrri berari dagozkionean, aurretiaz egin beharreko izendapena ere bateratua eta bakarra izango da.

5. atala.–

1.– Interesatuentzako entzunaldia irekitzeko Kultu-ra Ondare zuzendariak aurretiaz egingo duen izendape-na, Udalbatzei eta dagokion Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei jakinaraziko zaie baita, mugatuta-ko balizko esparruei dagokienez, jabe zein inskribatuta-ko errege eskubideen titular direnei ere.

2.– Udalerrri bereko balizko arkeologia esparruak bilduta, Kultura Ondare zuzendariak aurretiaz egin beharreko izendapena egiterakoan, gorago esan bezala Udalbatzei eta Foru Aldundietako Sailei horren berri emateaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldiz-karian, dagokion Lurralde Historikoaren Boletinean eta balizko arkeologia gunea dagoen Udalerriko iragarki oholean ere jakinaraziko du izendapena, era horretara, gai horretan interesaturik egon daitezkeen partikula-rrak entzunaldia izateko aukera izan dezaten.

– Las estructuras visibles, de aterrazamientos, muros, túmulos o elementos que indiquen un posible hallazgo arqueológico.

– Yacimientos arqueológicos que hayan sido objeto de excavación previa, sin agotar la totalidad del registro arqueológico o que hayan sido profundamente alterados por causas naturales o antrópicas.

3.– En función de los indicios reseñados, el Informe que elabore el Centro de Patrimonio Cultural deberá establecer el perímetro total afectado por la presunción arqueológica, sin que quepan menciones genéricas o áreas indeterminadas.

4.– En todo caso, el perímetro de protección en torno al posible hallazgo no superará los quince metros a su alrededor en el caso de suelos no urbanizables, y de hasta tres metros en suelos urbano y urbanizable.

De la descripción o delimitación del perímetro que se efectúe, deberá desprenderse inequívocamente el área afectada por la declaración.

5.– El Centro de Patrimonio Cultural, siempre que ello fuera posible, deberá seguir una sistemática que permita la posterior declaración de presunción arqueológica de todos las áreas afectadas en un Municipio o Grupo de ellos con homogeneidad histórico-arqueológica, acumulando en un único Informe todos los datos o solicitudes relativas a un Municipio o Grupo de ellos con homogeneidad histórico-arqueológica.

Artículo 4.– A la vista de la documentación obrante en el expediente el Director de Patrimonio Cultural, promoverá la audiencia de los interesados mediante una declaración previa del área de presunción arqueológica, conteniendo necesariamente la delimitación del perímetro afectado, y la naturaleza de los indicios en base a los cuales se funda tal presunción, a los efectos de dar audiencia a los posibles interesados.

Se acumularán en una sola declaración previa las presunciones correspondientes a un mismo Municipio, de las que se tenga indicio.

Artículo 5.–

1.– La declaración previa que efectúe el Director de Patrimonio Cultural, al objeto de promover la audiencia de los interesados, será notificada tanto a los Municipios y a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la correspondiente Diputación foral, como a los propietarios o titulares de derechos reales inscritos sobre las áreas afectadas.

2.– Cuando por el Director de Patrimonio Cultural se proceda a efectuar una declaración previa que acumule las áreas de presunción arqueológica de un mismo Municipio, sin perjuicio de las notificaciones a Municipios y Departamentos forales reseñados, la declaración previa a los citados efectos de posibilitar la audiencia de los posibles particulares interesados, será notificada mediante publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, en el del Territorio Histórico correspondiente, e inserta durante veinte días en el tablón de anuncios del Ayuntamiento en cuyo término se encuentre el área afectada.

3.- Balizko arkeologia gune izendatzeko prozedurak hartutako esparrua dela eta, gizabanakoek, hots, jabe, inskribatutako errege eskubideen titular zein eragileek, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari helarazitako jakinarazpen guztiak, prozeduran bertan ekar ditzaketen ondorioak izateaz gainera, aurrerantzean banan-banan hartuko dira aintzakotzat, bai espediente horri dagokionez, baita hortik sor daitezkeen gainerako guztiei dagokienez ere.

4.- Aurretiaz egindako izendapen jakinarazpenak, dagokion espedienteak ekar dezakeenaz gain eta espedienteaz erabakia hartzen den bitartean, aipatutako arkeologia Ikerketa egin dezaten agintzeko bidea emango die Herri Agintaritzari, Kultura Ondarearen Legean, 49. atalean adierazi bezala eta bertan ezarritakoari jarraituz.

6. atala.- Aurretiaz egindako izendapena jakinarazteko prozedura edozein dela ere, jakinarazpena, argitalpena edo iragarpena egin denetik hogeit egun igarota, arkeologia guneari edo guneei dagio/enez inork argumentu falta salatzen ez badu, orduan, izendapen hori dagokion sailburuordeari igorriko zaio hogeit eguneko epean iragarpen prozesua erabat bukatzen denetik hasita balizko arkeologia gunetzat jotako inguru, orube eta eraikinak direla eta, berariazko izendapena egin dezan lege aldetik dagozkion ondorioetarako.

Aurretiaz egindako edozein izendapeni dagokionez jakinarazpenen bat egonez gero, sailburuordeari igorriko zaio hogeita hamar eguneko epean iragarpen prozesua erabat bukatzen denetik hasita. Kasu horretan, sailburuordeak, erabakia hartzerakoan, nahitaez berariaz aipatu beharko du jakinarazpenean argudiatutako arrazoiak onartzen dituen ala ez.

Sailburuordeak inguru, orube zein eraikin bat balizko arkeologia esparru izendatzeko hartuko duen Erabakia hogeit eguneko epean hartuko da, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak izendapen proposamena igorri dionetik hasita. Erabaki hori, espedientearen interesatu gisa agertzen diren gizabanakoei banan-banan jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Lurralde Histirokoaren Boletinean argitaratuko da.

Dena den, izendapenaren argitalpena izendapenari buruzko aipamen hutsa ere izan liteke eta, orduan, honako hau argituko da berariaz, alegia, edozein pertsonak espediente osoaren kopia zein/tzu tokitan izan dezakeen eskuragarri. Edonola ere, orijinala Kultura Ondarearen Zentroan egongo da beti. Nahiz eta era horretara gertatu, izendapenaren berri eman beharko zaie bai dagokion Udaltzari, bai dagokion Foru Aldundiari.

Ezarritako epe horretan sailburuak berariazko erabakirik hartzen ez badu, dena delako balizko arkeologia gunea onartu ez dela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera.

7. atala.- 7/1990 Legearen 49. atalean adierazitako ikerketa arkeologikoa, balizko arkeologia gunetzat hartutako inguru, orube zein eraikinean zein balio arkeo-

3.- Cuantas comunicaciones sean puestas en conocimiento del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco por particulares que ostenten la condición fehacientemente acreditada de propietarios, titulares de derechos reales inscritos, o promotores, de un área afectada por el procedimiento de declaración de presunción arqueológica, servirán para que sin perjuicio de los efectos que genere en el procedimiento en lo sucesivo, se les tenga en cuenta de manera individualizada en ese expediente y en aquellos otros que del mismo se pudieran desprender.

4.- La notificación de la declaración previa, sin perjuicio de lo que resulte del expediente correspondiente, supondrá hasta que el mismo se resuelva la exigibilidad por los Poderes Públicos del Estudio arqueológico al que hace alusión el artículo 49 de la Ley de Patrimonio Cultural, en los mismos supuestos por ella previstos.

Artículo 6.- Cualquiera que sea el procedimiento de puesta en conocimiento de la declaración previa, transcurridos veinte días desde su notificación, publicación o inserción, sin que se reciba comunicación respecto al área o áreas de presunción arqueológica de la que se desprenda la carencia argumental de dicha declaración previa, la misma será remitida, en veinte días desde la última fecha posible de cómputo, al Viceconsejero competente, al objeto de que efectúe una declaración expresa de la, o las correspondientes zonas, solares o edificaciones con presunción arqueológica a los efectos legales señalados.

Cuando hayan habido comunicaciones relativas a cualquier declaración previa, la remisión al Viceconsejero podrá realizarse en treinta días desde la última fecha posible de computo, quedando el Viceconsejero obligado en su resolución a hacer expresa mención respecto de la admisión o no de las razones en aquéllas argüidas.

La Resolución del Viceconsejero, declarando la presunción arqueológica de una zona, solar o inmueble, deberá producirse en el plazo de veinte días desde su remisión desde la Dirección de Patrimonio Cultural y será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico correspondiente, sin perjuicio de la notificación individualizada a quienes aparezcan como interesados en el expediente.

No obstante, la publicación de la declaración podrá limitarse a una referencia de la declaración efectuada, con expresa mención del lugar o lugares donde cualquier interesado tenga a su disposición copia del expediente completo, cuyo original en todo caso deberá obrar en el Centro de Patrimonio Cultural. Esta posibilidad no eximirá de la obligación de notificar la declaración al Ayuntamiento y a la Diputación correspondientes al área declarada.

El no pronunciamiento expreso por el Viceconsejero en el plazo establecido será considerado como desestimación de declaración de presunción arqueológica, en los términos contemplados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Artículo 7.- El estudio arqueológico, previsto en el artículo 49 de la Ley 7/1990, que determine el valor arqueológico de la zona, solar o edificación, del área

logiko egon daitezkeen zehazteko egingo da eta, beti ere, lurrazala mugituko duen edota izendatutako elementuan eragina izan dezakeen obra proiektu bati loturik etorriko da.

Ikerketa Arkeologikoak, izendatutako esparrua ebaluatu eta beharrezko diren elementu guztien berri emango du, era horretara, dagokion Foru Aldundiak Proiektu arkeologikoa beharrezko den ala ez erabaki dezadan, 7/1990 Legearen 49. ataleko 2. lerroaldian esandakoari jarraituz. Ikerketa horretan, arkeologiaren disziplinan erabili ohi diren teknikak erabiliko dira eta eskuz zein bitarteko mekanikoz zundaketak egiteko aukera ere izango da, arkeologia potentziala eta kontserbazio maila zein den jakiteko.

Ikerketak, esparruan burutu nahi den obra proiektua aintzat hartuta, gutxienez, honako argibide hauek izango ditu:

A) Zundaketarik egin beharrik ez duten balizko arkeologia esparruak.

a1) Arkeologia esparrua zehatz-mehatz mugatzea. Horretarako, nondik norakoak eta muga zehatzak finkatuko dira, Foru Aldundietako oinarri kartografikoe-tan (1:1000 edo 1:5000 eskalan) dagozkion UTM koodenatuak adieraziz. Udalerrria, erakundea eta sarbideak ere jakinaraziko dira.

a2) Ondasunarekin zerikusia duen ingurua zehatz deskribatu, Obra Proiektuak hartzen duen lurra egun zertarako erabiltzen den azalduz.

a3) Kontestu historikoa eta orain arte egindako azterketak, ikertu beharreko esparruari dagozkion idatzizko argibideak eta gainerako agiriak bilduta.

a4) Balizko arkeologia esparruari lotuta daudela, agerian dauden egiturei buruzko deskribapena eta azterketa.

a5) Azterketa hau hasi baino lehenago inguru horretan, lurrazalean jasotako aztarnen zerrenda, sailkapena eta dokumentazio grafikoa. Aztarnetegian indusketa partzialik egin bada, berreskuratutako materialak eta agertutako estratuak aipatuko dira. Zerrenda zehatz-zehatzik egin beharrik ere ez dago.

a6) Orain arte bertan egindako lanez eta erabilitako metodologiak osatutako programa zehatza.

a7) Azken balorazioa. Esparruari eragingo dion obraren proiektua deskribatuko da. Bertan, lan horiek arkeologia ondarean izan dezaketen eragina eta jarraitu beharreko irizpide egokienak azalduko dira.

B) Balizko arkeologia guneak, benetan esparru arkeologikoak diren eta, izatekotan, nolakoak diren jakiteko zundaketak edo/eta Eraikitako Ondarearen ikerketak behar dituztenak. Aurreko ataletan, a1), a2), a3), a4), a5), a6), a7) puntuetan azalduetakoz gainera, honako hauek ere eskatuko dira:

b1) Zundaketak non egin behar diren zehaztea.

b2) Indusketan eta azterketan erabilitako teknikak, informazio stratigrafikoa jasotzeko fitxak erantsiz.

b3) Berreskuratutako material arkeologikoen zerrenda eta deskribapena, horretarako, zerrenda bera eta materialak erregistratzeko fitxak erantsiz.

declarada de presunción arqueológica, deberá siempre venir referido a un proyecto de obras, que provoque la remoción de la superficie o incida en el elemento afectado por la declaración.

Sin perjuicio de lo que continuación se expresa, el Estudio Arqueológico, deberá realizar una evaluación del área afectada conteniendo los elementos precisos para que la Diputación Foral determine la necesidad del Proyecto arqueológico que se contempla en el párrafo 2.º del referido artículo 49 de la Ley 7/1990. A tal efecto se utilizarán las técnicas de recogida de información y de reconocimiento del terreno habituales en la disciplina arqueológica, pudiendo acudir a la realización de sondeos manuales o mecánicos para constatar el potencial arqueológico y su grado de conservación.

Dicho estudio, atendiendo al Proyecto de obras que se quiera ejecutar, deberá contener, al menos, los siguientes extremos:

A) Zonas de presunción que no precisen la ejecución de sondeos.

a1) Identificación clara y precisa de la zona arqueológica, expresando sus límites, con las correspondientes coordenadas UTM, en la bases cartográficas de las Diputaciones Forales (escala 1:1000 o 1:5000). Se indicará el municipio, la entidad y los accesos.

a2) Descripción pormenorizada de la zona y del entorno relacionado con el bien, detallando los usos actuales del suelo afectado por el Proyecto de Obras.

a3) Contexto histórico e intervenciones anteriores. Recopilando las fuentes escritas y demás documentos que se refieren a la zona objeto de estudio.

a4) Descripción y análisis previo de las estructuras emergentes asociadas a la zona de presunción arqueológica.

a5) Inventario, clasificación y documentación gráfica de los restos materiales recogidos en superficie con anterioridad al inicio de este estudio. Si el yacimiento está excavado parcialmente se hará referencia a la secuencia estratigráfica y a los materiales recuperados, sin necesidad de incluir un inventario detallado.

a6) Programa detallado de los trabajos realizados y de la metodología empleada.

a7) Valoración final. Se deberá describir el proyecto de la obra que afecta a la zona, señalando su incidencia en el patrimonio arqueológico y las propuestas de actuación más indicadas.

B) Zonas de presunción que precisen para definir su naturaleza, la realización de sondeos y/o de estudio del Patrimonio Edificado. Se incluirán, además de los apartados a1), a2), a3), a4), a5), a6), a7), lo siguiente:

b1) Localización en planta de los sondeos.

b2) Técnicas de excavación y de registros utilizadas, adjuntando fichas de recogida de información estratigráfica.

b3) Inventario y descripción de los materiales arqueológicos recuperados, adjuntando dicho inventario y las fichas de registro de materiales.

b4) Planimetria osagarriak eta material grafikoa.

Aipatutako Ikerketa hori Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentrora igorriko da eta, ondoren, hortik, dagokion Foru Aldundira bidaliko da ikerketa jaso eta bost egunera gehienez jota.

8. atala. -

1.- Arkeologia ikerketa hori profesional batek sinaturik egongo da. Profesional horrek Lizentziatua izan behar du Historian eta, horrez gainera, arkeologian trebatua dela eta esperientzia baduela erakutsi behar du. Horretarako, nahikoa izango da ikerketa zuzendariak «curriculum vitae»a aurkeztea eta, bertan, hauek jakinaraztea: ea zein indusketa arkeologikotan izan den ordura arte zuzendari edo lankide eta, arkeologia arloarekin nahiz ikerketekin zuzenean zerikusirik izanik, zein proiektu zuzendu duen.

2.- Salbuespen modura, arestian aipatutako titulazio akademiko ofizialik ez duten gizabanakoek ere izenpetu ahal izango dute gorago aipatutako ikerketa hori baina, beti ere, dagokion ikerketa arkeologikoa osatzeko egin beharreko indusketa arkeologikoen antzekoak egin dituztela frogatuz gero Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean. Lehen lerroaldian eskatutako titulaziorik ez dutenek sinatutako ikerketak baliogarriak izan daitezten, curriculum vitae-a aurkezteaz gainera, interesatuak beste agiriren bat ere aurkeztu beharko du egin beharreko ikerketari dagokionez bere gaitasuna frogatzeko: alegia, dagokion Kolegio Profesionalak emandako agiria edo/eta Euskal Herriko Unibertsitatean arkeologia ikasketak egiten diren Departamentuak emandakoa. Akreditazio horrek ekar ditzakeen gastu guztiak interesatuak berak ordaindu beharko ditu.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Hirigintza araudiari jarraituz, monumentuak zaindu eta hobetzeko Udalbatzek osatu behar dituzten Katalogoetan jasoko dira Dekretu honen arabera balizko arkeologia gune izendatutako esparruak ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Dekretu honetan erakunde kolegiatuez zeribait zehaztu gabe geratuz gero, Herri Administrazioen Araubidea eta Guztiontzako Administrazio Ihardunbidea onartuz azaroaren 26an emandako 30/1992 Legean arlo horretaz agindutakoari jarraituko zaio.

Bigarrena.- Kultura sailburuak, Dekretu honetan ezarritakoa bideratu eta burutu ahal izateko beharrezko diren erabaki guztiak hartzeko ahalmena izango du.

Hirugarrena.- Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko urriaren 8an.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,
M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

b4) Planimetrías complementarias y material gráfico.

Dicho Estudio será remitido al Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, para que desde éste se remita a la Diputación Foral competente, en un plazo no superior a cinco días desde su recepción.

Artículo 8.-

1.- El estudio arqueológico deberá ser suscrito por un profesional que deberá tener la titulación académica de Licenciado en Historia y acreditar su formación y experiencia en arqueología. Se considerará acreditación suficiente la presentación, por parte del director del estudio, de un «curriculum vitae» que especifique las direcciones y colaboración en excavaciones arqueológicas, los proyectos dirigidos, directamente relacionados con la materia e investigaciones arqueológicas en general.

2.- Excepcionalmente, podrán suscribir tal estudio las personas físicas que aún sin contar con la titulación académica oficial antes referida, acrediten ante el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco haber dirigido excavaciones arqueológicas similares a la que se vaya a realizar para la ejecución del estudio arqueológico al que venga referido. Para reconocer la validez de los estudios que realicen quienes no ostenten la titulación exigida en el párrafo primero, por el interesado además del curriculum vitae se aportará algún documento del Colegio Profesional competente y/o de un Departamento Universitario, donde se impartan conocimientos de arqueología, que avale la capacidad del mismo, en relación al Estudio que efectúe. Cualquier coste derivado de tal acreditación será por cuenta de quien solicite el reconocimiento señalado.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Los Municipios incorporarán a los Catálogos de conservación o mejora monumental, previstos en la normativa urbanística, aquellas áreas afectadas por las declaraciones de presunción arqueológica que por éste se regulan.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- En defecto de lo previsto en el presente Decreto se aplicará lo dispuesto para los órganos colegiados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.- Se faculta a la Consejera de Cultura para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en el presente Decreto.

Tercera.- El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 1996.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Cultura,
M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.